Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**Bizkaiko Foru Aldundiaren ___/2017 Foru Dekretuaren proiektua, _______aren __(e)koa, zeinaren bidez ekintzailetzarako eta kalitateko enplegu egonkorra sortzeko proiektu berritzaileak garatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen diren.**

Foru dekretu honen helburua da ekintzailetza eta kalitateko enplegu egonkorra sustatzen dituzten metodologia berrien eta berritzaileen proiektuetarako diru-laguntzen programa bat artikulatzea.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren egitura organikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 26ko 6/2016 Foru Dekretuaren arabera, sailaren helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea, eta, horretarako, zerbitzuak ematen dizkie egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsonei. Zeregin horretan, arreta berezia jartzen du tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatzen ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatzen, generoaren, dibertsitatearen kudeaketaren eta lankidetza zein garapenaren arloko politiken bidez.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak bultzatzen duen eredu ekonomikoak enplegu egonkor eta kalitatekoaren sorrera sustatzen du, genero-berdintasuna bultzatzen du, aberastasuna birbanatzen du, onurak berrinbertitzen ditu, lurraldearekin konpromisoa hartu du, eta aukerak ematen dizkie beren inguruabar bereziengatik laneratzeko zailtasun handiagoak dituztenei (bereziki, gizarte-bazterketako egoeran geratzeko arriskua dutenei eta desgaitasuna dutenei). Horrez gainera, eredu

**Proyecto de Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia /2017 de xxxxxxxxxxxx, por el que se establecen las bases y convocatoria reguladoras de las subvenciones destinadas el desarrollo de proyectos innovadores de emprendimiento y empleo estable y de calidad.**

Es objeto del presente Decreto foral articular un programa de subvenciones que proponga proyectos y metodologías novedosas e innovadoras que fomenten el emprendimiento y empleo estable y de calidad.

Conforme al Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 6/2016, de 26 de enero, por el que se aprueba el Decreto de Estructura Orgánica del Departamento de Empleo Inclusión Social e Igualdad, éste departamento tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad apuesta por un modelo económico que favorece la creación de empleo estable y de calidad, que promueve la igualdad de género, que redistribuye la riqueza, que reinvierte los beneficios, que se compromete con el territorio, que da oportunidades a quienes por sus especiales circunstancias encuentran mayores dificultades de inserción laboral, en especial las personas en riesgo de exclusión social y las personas con discapacidad, que constituye un elemento clave de las políticas

ekonomiko hori enplegu-politiketarako funtsezko tresna da, eta gizarte bidezkoago eta solidarioago bat sortzen laguntzen du.

de empleo y que contribuye a crear una sociedad más justa y solidaria

Nahiz eta krisi ekonomikoa moteltzen ari dela eta enplegua sortzen hasi dela dirudien, ezin dira parekatu sortzen ari den enplegua eta krisialdiko urteetan galdutakoa. Kontratazio berriak ez dira lehengo berdinak, ez soldatari dagokionez, ez egonkortasunari dagokionez; are gutxiago, enpleguaren beste alderdi kualitatibo batzuen ikuspuntutik. Beraz, enpleguaren kalitatea sustatzeko beste neurri batzuk aztertu behar dira, proiektu eta metodologia berritzaileen bidez.

Aunque parece que la crisis económica remite y que se ha comenzado a generar empleo, este empleo que se genera no es equiparable al empleo perdido durante los años de la crisis. Las nuevas contrataciones no son equivalentes ni en salario, ni en estabilidad y mucho menos en otros aspectos cualitativos del empleo. Se hace necesario, por tanto explorar medidas que fomenten la calidad en el empleo a través de proyectos y metodologías innovadoras.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak funtsezko helburu bat du enpleguaren arloan, hain zuzen, langabezian dauden pertsonak laneratu daitezen lortzea. Horretarako, enplegagarritasuna sustatzeko jarduketa-ildo batzuk ezarrita dauzka gazteentzat, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzat (La Berri) eta laneratzea batzuetan enpresaburu autonomoaren edo enpresa txiki kolektiboaren formulak —autoenpleguaren sustapenari lotuak— erabiliz errazagoa eta egingarriagoa (besteren konturako laneratzea baino) duten pertsonentzat.

El objetivo prioritario del Departamento de Empleo, Inclusión social e Igualdad en materia de empleo, es lograr la inserción laboral de las personas en situación de desempleo, y para ello tiene establecidas diferentes líneas de actuación de promoción de la empleabilidad, dirigidas a las personas jóvenes, a las personas con especiales dificultades de inserción Lan Berri, o a las personas para las cuales la inserción es, en algunos casos, más factible y sostenible si se hace mediante fórmulas de empresariado autónomo o de pequeña empresa colectiva, que si se pretende recurrir a la inserción por cuenta ajena, mediante el fomento del autoempleo.

Orain arte ezarritako mekanismoek, baina, bide tradizionalak darabiltzate pertsonen laneratzea lortzeko. Mekanismo horiek ez dute balio kolektibo jakin batzuen kasuan, batzuetan tradizio kultural desberdina izanik haien laneratzea askoz konplexua delako; beste batzuetan, familia-ardurak edo mendekotasuna duten pertsonak zaindu beharra oztopo direlako zenbait ordutegitara egokitzeko, edo, zaurtagarritasun-egoeran dauden pertsona batzuek askoz ere arreta handiagoa behar dutelako ohiko baliabideek eskaintzen dietena baino.

Sin embargo, los mecanismos establecidos hasta ahora tienden a la búsqueda de la inserción laboral de una forma tradicional. Estos mecanismos no surten efecto en determinados colectivos, en algunos casos porque su tradición cultural es diferente y por tanto la inclusión en el mercado laboral resulta mucho más complicada, en otros casos porque las responsabilidades familiares o el cuidado de personas dependientes no permite acomodarse a determinados horarios establecidos, en otros porque determinadas personas que se encuentran en situación de alta vulnerabilidad tienen muchas más necesidades de atención que la ofrecida por los recursos tradicionales.

Programa lehen adierazitako arazoak konpontzeko

El programa surge de la necesidad de dar solución

sortu da, eta, haren bidez, enplegurako modu berriei eta ezegonkortasunari heldu nahi zaie, eta enpleguan zeharkako mekanismoak ezarri nahi dira, enplegua bera ez ezik, beste alderdi batzuk kontuan hartzeko, adibidez: aukera-berdintasuna sustatzea enpleguan; familia eta lana uztartu ahal izatea, edo enpleguaren antolaketarako formula berriak, ezkutuko ekonomia agerian utzi edo dibertsitatea aintzat hartzen dutenak.

Laneratzean aurrera eginez pertsonei gizarteratzen laguntzen diegu, pertsonen gizarteratzea eta sendotzea ahalbidetzen duten estrategiak sustatuz. Azken finean, lanaren eremuan ez ezik, pertsonen inguruan dauden eta enplegagarritasunaren arloan ere eragina duten beste alderdi batzuetan lan egin nahi da.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, besteak beste, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu nahi du Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta berdintasunaren arloko foru-politika bultzatu. Horregatik, foru dekretu honetan jasotzen diren jarduerek genero-ikuspegia jaso beharko dute beren garapenean, eta bat etorri beharko dute Sailak berdintasunaren arloan dituen ildo estrategikoekin, alegia: zeharkakotasuna, ahalduntzea eta balioen aldaketa, kontziliazioa eta erantzukidetasuna, indarkeria matxista errotik erauzteko konpromiso gisa.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Ildo horretan, foru dekretua dela-eta, aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egin da, 2/2017 Foru Dekretuan adierazitakoarekin bat.

a las cuestiones anteriores, a las nuevas formas empleo, a combatir la precariedad y a instrumentar mecanismos transversales en el empleo que contemplen no únicamente el empleo en sí mismo, sino que aborden cuestiones tales como la igualdad de oportunidades en el empleo, la conciliación y corresponsabilidad las fórmulas novedosas de organización de empleo, afloren economía sumergida o tengan en cuenta la diversidad.

Un avance en la integración laboral supone no desatender la integración social, promoviendo estrategias que posibiliten el fortalecimiento y la integración de la persona en su sociedad. Se trata por tanto de promocionar a la persona además de en el ámbito laboral en otros aspectos que le rodean que a su vez afectan al ámbito de la empleabilidad.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad tiene como objetivo la promoción de la igualdad entre mujeres y hombres en el Territorio Histórico de Bizkaia así como el impulso de la política foral de igualdad. Por ello, las actuaciones contempladas en el marco del presente Decreto foral deberán incorporar la perspectiva de género en sus desarrollos y coincidir con las líneas estratégicas del Departamento en materia de Igualdad: transversalidad, empoderamiento y cambio de valores, conciliación y corresponsabilidad como compromiso en la erradicación de la violencia machista.

El presente Decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017 de 17 de enero por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

En este sentido ha sido sometido a trámite de consulta pública previa, conforme lo previsto en el Decreto foral 2/2017.

Xedapen hau onartzeko eskumenari dagokionez, 1987ko otsailaren 13ko 17.1.4 eta 17.2 artikuluen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua da organo eskuduna.

En relación a la competencia del órgano para la aprobación de la disposición, a tenor de los artículos 17.1º 4 y 17.2º de la Norma Foral 3/87, de 13 de febrero, ésta corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia

Hori dela bide, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak ...(eguna)...(e)ko bileran azterturik, honako hau

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión del día de de 2017.

XEDATZEN DUT

DISPONGO

## I. TITULUA

## TITULO I

## LANERATZEKO ETA KALITATEKO ENPLEGUA SORTZEKO BERRIKUNTZA-PROIEKTUAK

## PROYECTOS DE INNOVACIÓN PARA LA INTEGRACIÓN LABORAL Y PARA LA CALIDAD EN EL EMPLEO.

1. artikulua. *Xedea*

Foru-dekretu honen xedea da ekintzailetzaren eta kalitateko enplegu egonkorraren arloko proiektu berritzaileak garatzeko laguntzak arautzea.

Artículo 1. *Objeto*

Es objeto del presente Decreto regular las ayudas para el desarrollo de proyectos innovadores en materia de emprendimiento y empleo estable y de calidad

2. artikulua. *Erakunde onuradunak*

Honako hauek izan daitezke erakunde onuradunak:

Laneratzearen edo kalitateko enpleguaren arloko proiektuak gauzatzen esperientzia egiaztatua duten Bizkaiko Lurralde Historikoko irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio eta erakundeak.

Euskal Autonomia Erkidegoko irabazi-asmorik gabeko unibertsitate-erakundeak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako ikastetxeen elkarteak eta Euskal Autonomia Erkidegoko irabazi-asmorik gabeko kluster-erakundeak

Entitate onuradunari lotutako entitateak, baldin eta diru-laguntza emateko zio diren jarduera guztiak edo batzuk onuradunaren izenean eta kontura egiteko konpromisoa hartzen badute.

Artículo 2. *Entidades beneficiarias*

Tendrán la consideración de entidades beneficiarias:

Las asociaciones, fundaciones y entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Bizkaia, que tengan experiencia contrastada en la ejecución de proyectos de inserción laboral o de calidad en el empleo.

Instituciones universitarias sin ánimo de lucro de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Las asociaciones de centros de enseñanza de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como las organizaciones clúster sin ánimo de lucro de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Las entidades asociadas a la entidad beneficiaria que tengan el compromiso de efectuar la totalidad o parte de las actividades que fundamentan la concesión de la subvención en nombre y por

cuenta de la primera tendrán igualmente la consideración de beneficiarias.

Onuradunak izateko, entitateak ez dira egon behar Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.

Para ser beneficiarias, las entidades no pueden verse afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral de Subvenciones.

3. artikulua. *Diru-laguntza jaso dezaketen ekintzak*

Ekintzailetzaren eta kalitateko enplegu egonkorraren arloan ideiak berriak, egiteko modu berriak edo metodologia berritzailea dakarten proiektuen diseinua, garapena eta gauzatzea lagunduko dira diruz.

Diru-laguntza jaso dezakeen ekintza izango da proiektu horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan diseinatu, garatu eta egitea, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren jarduketa-lerroekin bat.

Diruz lagundu ahal izateko, proiektuek, gutxienez, gai hauetako bati heldu behar diote:

- Enpleguaren kalitatea hobetzea
- Genero-berdintasuna sustatzea enpleguan
- Denbora antolatzeko eta lana eta familia uztartzeko formula berriak bilatzea.
- Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen alde egiten duten proiektuak
- Ezkutuko ekonomia azaleratzen dutenak
- Dibertsitatea kontuan hartzen dutenak
- Pertsonen prestakuntza hobetzeko formula berritzaileak erabiltzen dutenak.

Artículo 3. *Acciones subvencionables*

Se subvencionará el diseño, desarrollo, y ejecución de proyectos que conlleven nuevas ideas, nuevas formas de hacer o una metodología innovadora en materia de emprendimiento y empleo estable y de calidad.

La acción subvencionable consistirá en el diseño, desarrollo, y ejecución de dichos proyectos en el Territorio Histórico de Bizkaia, en consonancia con las líneas de actuación del Departamento de Empleo Inclusión Social e Igualdad.

Para que sean subvencionables, los proyectos deberán abordar, al menos, una de las siguientes materias:

- La mejora de la calidad en el empleo,
- La igualdad de género frente al empleo
- La búsqueda de formas novedosas de organización del tiempo y medidas de conciliación y corresponsabilidad
- Que apuesten por la inclusión social y la integración laboral de personas con alta vulnerabilidad
- Que afloren economía sumergida
- Que tengan en cuenta la diversidad
- Que aborden fórmulas innovadoras para la mejora de la cualificación de las personas.

- Enplegua eta gizarte-inklusioa eta/edo aukera-berdintasuna uztartzen dituztenak.
- Orientazio, prestakuntza eta lan-bitartekotzarako metodologia berriak baliatzen dituztenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore estrategikoetan ekintzailetzaren eta enpleguaren arloan ideia berriak, egiteko modu berriak edo metodologia berritzaileak dakartzatenak.
- Ekintzailetzaren eta enpleguaren arloan ideia berriak, egiteko modu berriak edo metodologia berritzaileak dakartzatenak, bai ekonomia jasangarriarekin, enplegu berdearekin eta zaintzaren ekonomiarekin lotutako sektore ekonomikoetan, bai konpondu gabeko beharrizanei erantzuten dieten ondasunak eta/edo zerbitzuak merkatuan jartzen dituzten eta gizarte- edo ingurumen-balioa sortzen duten sektoreetan, bai eta baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonei ondasun edo zerbitzuak eskuratzen laguntzen dieten sektoreetan ere.

Proiektuek argi azaldu behar dute zer arazo edo beharrizani heldu nahi dioten, ikuspegi kuantitatibotik zein kualitatibotik, eta eragin-faktoreak eta pertsona edo kolektibo jasotzaileak identifikatu behar dituzte.

Proiektuek izaera berritzaile argia izan behar dute, eta garrantzizko hobekuntzak proposatu behar dituzte, beste metodologia batzuen aldean (halakorik badago).

Entitate adjudikaziodunek eskura dituzten baliabide guztiak jarri beharko dituzte proiektuetan gizonezko eta emakumezkoen arteko ordezkaritza orekatua egon dadin.

4. artikulua. *Laguntzen zenbatekoa eta muga*

- Que conjuguen el empleo y la inclusión social y/o la igualdad de oportunidades.
- Que incidan en nuevas metodologías para la orientación, formación e intermediación laboral.
- Que conlleven nuevas ideas, nuevas formas de hacer o supongan innovación en metodologías para el emprendimiento y el empleo en sectores estratégicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Que conlleven nuevas ideas, nuevas formas de hacer o supongan innovación en metodologías para el emprendimiento y el empleo en sectores económicos relacionados con la economía sostenible y el empleo verde, la economía del cuidado, o con sectores que pongan en el mercado bienes y/o servicios que respondan a problemas o necesidades sociales no resueltas y creen valor social o ambiental o que faciliten el acceso a bienes o servicios a personas con escasos recursos económicos.

Los proyectos deberán describir claramente el problema o la necesidad que pretenden abordar, tanto desde el punto de vista cualitativo como cuantitativo, identificando los factores de incidencia, así como las personas o colectivo destinatario.

Los proyectos propuestos deberán tener un claro carácter innovador, aportando mejoras sustanciales frente a otras posibles metodologías, si es que existieran.

Las entidades adjudicatarias deberán poner los medios a su alcance para que en el desarrollo de los proyectos exista una representación equilibrada de mujeres y hombres.

Artículo 4. *Cuantía y límite de la subvención*

Diru-laguntzak funts galdurako izango dira, eta zenbatekoak ezin izango du inoiz ere gainditu diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako ekintzen benetako kostua.

Las ayudas consistirán en subvenciones a fondo perdido, que no podrán superar en ningún caso el coste real de las acciones subvencionables presentadas.

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da proiektuan aurrez ikusitako gastu eta sarreren aurrekontua, eta norgehiagoka sistema erabiliko da, 6. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak oinarri hartuta.

La cuantía de la subvención se calculará a partir del presupuesto de gastos e ingresos previstos del proyecto, y tras la aplicación de la concurrencia competitiva sobre la base de los criterios de valoración establecidos en el artículo 6.

Entitate eskatzaile bakoitzak lor dezakeen gehieneko diru-laguntza 30.000 eurokoa izan daiteke aurkeztu eta diru-laguntza jaso dezaketen ekintza guztietarako.

La subvención máxima alcanzable por entidad solicitante y por el total de las acciones subvencionables presentadas, ascenderá a un máximo de 30.000 euros.

5. artikulua. *Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak*

Artículo 5. *Gastos subvencionables*

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak izango dira: diru-laguntza jasotzen duen jarduera garatzeko beharren-beharreneko gastuak, diru-laguntza jasotzen duen jarduerаren kostuak; horrelakotzat hartuko dira diru-laguntza jasotzen duten jarduketekin zuzenekin lotuta dauden gastuak, baldin eta eta entitate onuradunak ordainduak baditu.

- Langileen zuzeneko gastuak; horrelakotzat hartuko dira diru-laguntza jasotzen duten proiektuen garapenean zuzenean diharduten langileen soldatak, alokairuak eta gizarte-segurantzaren gastuak.
- Jarduerаren kostuak, beharren-beharrenekoak dienak diru-laguntza jasotzen duen jarduera garatzeko. Kontzeptu honetan honako hauek sartuko dira: material didaktikoa eta suntsikorra; istripu-aseguruak eta erantzukizun zibilekoak; zabalkunde-gastuak; azterlanak, txostenak prestakuntza eta abar azpikontratzearen ziozko gastuak, eta proiektua garatzeko beharrezkoa den beste edozein.
- Era berean, diru-laguntza jaso dezakete diru-laguntza hartzen duen jarduerаren zeharkako kostuek; horrelakotzat hartuko

Tendrán la consideración de gastos subvencionables los estrictamente necesarios para el desarrollo de la actividad subvencionada, entendiendo por tales los gastos directamente relacionados con las actuaciones subvencionadas que hayan sido abonados por la entidad beneficiaria.

- Costes directos de personal entendiendo por tales los sueldos y salarios y gastos de seguridad social de las personas que participen directamente en la ejecución de los proyectos subvencionados.
- Costes de actividad, estrictamente necesarios para el desarrollo de la actividad subvencionada. Quedarán incluidos en este concepto los gastos de material didáctico y fungible, los seguros de accidentes y responsabilidad civil, los gastos de difusión, los gastos de subcontratación de estudios, informes, formación… así como aquellos otros gastos estrictamente necesarios para el desarrollo del proyecto.
- Así mismo, serán subvencionables los costes indirectos de la actividad subvencionada, entendiendo por tales

dira diru-laguntza jasotzen duen jarduera garatzeko beharrezkoak izan baina justifikatu behar ez direnak. (elektrizitatea, telefonoa, administrarien gastuak, alokairuak, eta abar). Zeharkako kostuen zenbatekoa, gehienez ere, diru-laguntza jaso dezaketen langileen zuzeneko kostuen % 15ekoa izango da.

aquellos que siendo necesarios para desarrollar la actividad subvencionada, no es necesaria su justificación (energía eléctrica, teléfono, personal administrativo, alquileres, etc.…). El importe de costes indirectos será un máximo del 15% de los costes directos de personal subvencionable.

Gastu hauek ezin izango dira diru-laguntza jaso dezaketen gastuak legez hartu: zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu ahal badira; errentaren gaineko zerga pertsonalak; zorren interesak; altzarien, ekipoaren, ibilgailuen, azpiegituren, ondasun higiezinen eta lurren eskuraketa berriak edo esku gaineko eskuraketak; interesak; errekarguak, eta administrazio- eta zigor-zehapenak; eta prozedura judizialen gastuak.

No tendrán la consideración de gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación, los impuestos personales sobre la renta, los intereses deudores, las adquisiciones nuevas o de segunda mano de mobiliario, equipo, vehículos, infraestructuras, bienes inmuebles y terrenos, los intereses, recargos y sanciones administrativas y penales y los gastos de procedimientos judiciales.

Entitate onuradunak eman zaion diru-laguntzaren % 75era arte azpikontratatu ahal izango ditu diru-laguntza jasotzen duen jarduera lortzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak, betiere 5/2005 Foru Arauaren 27. eta 29. artikuluekin bat etorriz.

La entidad beneficiaria podrá subcontratar, hasta un 75% del importe de la subvención otorgada, cuantas actividades sean necesarias para la consecución de la actividad subvencionada de conformidad con los artículos 27 y 29 de la Norma Foral 5/2005.

5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua aplikatuz, entitate onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaileri eskaintza bana eskatu beharko die, baldin eta diru-laguntza jaso dezakeen gastua 50.000 eurotik gorakoa bada obra egitearen ziozko kostuari dagokionez, edo 18.000 eurotik gorakoa bada ekipamendu-ondasunak hornitzen direnean edo aholkularitza-enpresek zein laguntza teknikokoek zerbitzuak ematen dituztenean.

En aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005, la entidad beneficiaria deberá, como mínimo, solicitar tres ofertas de diferentes proveedores cuando el gasto subvencionable supere la cuantía de 50.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o 18.000 euros en el caso de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica.

Aurkezten diren eskaintzen arteko aukeraketa justifikazioan ekarri beharko da, eta efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera jokatuko da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da

La elección entre las ofertas presentadas, deberá aportarse en la justificación, y se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria de elección cuando no recaiga en la

inguruabar hori, aukeraketa-memoria baten bidez.

6. artikulua. *Diru-laguntzak emateko prozedura eta balorazio-irizpideak*

Norgehiagoka araubidearen bidez hautatuko dira eskabideak. Horretarako, honako prozedura hau hartuko da norgehiagoka araubidetzat: aurkezten diren eskabideak erkatu egiten dira, eta, artikulu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera, euren arteko lehentasun-hurrenkera ezartzen da. Gero, dagoen kreditua kontuan hartuta deialdian ezarri den mugarekin betiere, hurrenkera horri jarraituz adjudikatuko dira laguntzak, irizpide horiek aplikatuta punturik gehien lortu dutenetik hasi eta beherantz eginez.

Ebaluazio-batzorde batek deialdi honetan laguntza jasoko duten proiektuak aukeratuko ditu. Honako hauek osatuko dute batzorde hori: Enplegua Sustatzeko Zerbitzuko pertsona bik, Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuko pertsona batek, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiko pertsona batek eta Barakaldoko Dema Enpresa Garapena entitateko ordezkari batek.

Aurkeztutako eskabideak baloratu eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1) Aurkeztutako proiektuaren definizio-maila, kalitatea, edukia eta aurkezpena, bai eta proiektuak entitate eskatzailearen helburu, lerro eta ekintzekin duen koherentzia ere. Gehienez, 4 puntu.

Irizpide hau baloratzeko, entitate eskatzaileak proiektuaren memoria aurkeztuko du, eta berean puntu batekin, gehienez, baloratuko da ondoko ataletako bakoitza:

- ✓ Aurkeztutako proiektuak erakunde eskatzailearen helburu, ildo eta

propuesta económica más ventajosa.

Artículo 6. *Procedimiento de concesión y criterios de valoración*

La selección de las solicitudes se realizará conforme con el régimen de concurrencia competitiva. A estos efectos, tendrá la consideración de concurrencia competitiva el procedimiento por el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo a los criterios de valoración que se señalan en este artículo, y adjudicar, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de estos criterios.

Una comisión evaluadora, formada por dos personas pertenecientes al Servicio de Empleo, una persona proveniente del Servicio para la Inclusión, una persona perteneciente a la Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad del Departamento Empleo, Inclusión Social e Igualdad y una persona representante de Dema Enpresa Garapena de Barakaldo seleccionará los proyectos que serán apoyados en la presente convocatoria.

Para la valoración de las solicitudes presentadas y determinación de la cuantía de la subvención se tendrán en cuenta los siguientes criterios a valorar:

1) El grado de definición, calidad, contenido, presentación y coherencia del proyecto presentado con los objetivos, líneas y acciones de la entidad solicitante. Puntuación máxima: 4 puntos.

Para la valoración de este criterio la entidad solicitante presentará memoria del proyecto en la que se valorará con un máximo de 1 punto cada uno de los apartados siguientes:

- ✓ coherencia del proyecto presentado con los objetivos, líneas y acciones de

jarduerekiko duen koherentzia.

- ✓ lortu nahi diren helburuak
- ✓ egin beharreko jarduerak; atal honetan, zehatz-mehatz azalduko da jarduera bakoitza, eta adieraziko da zein epetan egingo den eta nor arduratuko den egiteaz
- ✓ eta, era berean, jarduera bakoitzeko aurrez ikusitako gastuak, aurrez ikusitako sarrerekin batera.

2) Proposatutako ekintzaren egokitasuna justifikatzeko arrazoiak. Gehienez, 4 puntu.

Irizpide hau baloratzeko, entitate eskatzaileak txosten bat aurkeztuko du, eta berean puntu batekin, gehienez, baloratuko da ondoko ataletako bakoitza:

- ✓ Lan-merkatuan egindako diagnostikoa, proiektua egiteko beharrizana justifikatzen duena.
- ✓ Justifikatzea proiektua zergatik zuzentzen zaion hautatuko kolektiboari edo sektore ekonomikoari, proiektua zer aukera-esparrutan sartzen den azalduta.
- ✓ Proiektua egitean aplikatu den metodología, "zertarako", "nola" eta "zer" azalduta.
- ✓ Aurrez ikusitako proiektuaren inpaktua eta ekintzailetzaren eta kalitateko enpleguaren arloko metodologia.

3) Proiektuaren inplementazioak, bere aplikazio-arloan, gizarteari dakarkion onura. Gehienez, 4 punturekin baloratuko da proiektuak arlo hauetan egindako ekarpena: laneratzea; genero-berdintasuna; eraldaketa sozialerako hezkuntza;

la entidad solicitante.

- ✓ los objetivos perseguidos
- ✓ las actuaciones a realizar, en este apartado se deberá detallar profusamente cada una de las actuaciones, con indicación de plazos de ejecución, y personas encargadas de su ejecución
- ✓ así como el detalle de los gastos de previstos por cada una de las actuaciones, junto con los ingresos previstos

2) Razones por las que se justifica la idoneidad de la acción propuesta. Puntuación máxima: 4 puntos.

Para la valoración de este criterio la entidad solicitante presentará un informe en el que se valorará con un máximo de 1 punto cada uno de los apartados siguientes:

- ✓ Diagnóstico realizado en el mercado laboral que justifique la necesidad de realización del proyecto.
- ✓ Justificación de la elección del colectivo y/o sector económico al que se dirige el proyecto, explicando el ámbito de oportunidad en el que se enmarca.
- ✓ Metodología aplicada en la ejecución del proyecto, explicando el "para qué", el "cómo" y el "qué".
- ✓ Impacto previsto del proyecto y la metodología en el emprendimiento y el empleo y de calidad.

3) El beneficio social de la implementación del proyecto en su área de aplicación. Se valorará con un máximo de 4 puntos, la contribución del proyecto a la inserción laboral, a la igualdad de género, a la educación para la transformación

lana eta familia uztartzea eta erantzunkidetasuna, eta enpleguaren kalitatearen hobekuntza gizarte-egoera ahuleko kolektiboetan, bereziki, guraso bakarreko familietan, desgaitasuna dutenen kolektiboan, etorkinen eta asilo-eske daudenen kasuan edo gazteen eta/do diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duenen kolektiboan.

social, a la conciliación y corresponsabilidad y a la mejora de la calidad en el empleo de colectivos desfavorecidos, especialmente hogares monoparentales o monomarentales, personas con discapacidad, personas migrantes, personas solicitantes de asilo o refugio, personas jóvenes y/o personas perceptoras de la renta de garantía de ingresos.

4) Bizkaiko Foru Aldundiarenak diren edo Aldundiak itunduta dituen gizarte inklusiorako programa, baliabide edo zentroren batean gizarte-inklusioko prozesuren batean dauden pertsonek parte hartzea proiektua garatzeko eta gauzatzeko orduan.

4) Participación en el desarrollo y ejecución del proyecto de personas que estén en procesos de inclusión social en alguno de los programas, dispositivos o centros para la inclusión social, propios o convenidos, de la Diputación Foral de Bizkaia.

Parte-hartzaileen % 100 kolektibo horretakoa bada, 4 puntuko balorazioa emango da

Si el 100% de las personas participantes pertenece a dicho colectivo, se valorará con 4 puntos

Parte-hartzaileen % 75 kolektibo horretakoa bada, 3 puntuko balorazioa emango da

Si el 75% de las personas participantes pertenece a dicho colectivo, se valorará con 3 puntos.

Parte-hartzaileen % 50 kolektibo horretakoa bada, 2 puntuko balorazioa emango da

Si el 50% de las personas participantes pertenece a dicho colectivo, se valorará con 2 puntos

5) Proiektuaren berrikuntza-maila. Gehienez, 20 puntuko balorazioa emango zaio proiektuak ekintzailetzaren eta kalitateko enplegu egonkorraren arloko ideia berriei, egiteko modu berriei eta IKTen erabilerari dagokienez dakarren berrikuntza-mailari.

5 puntuko balorazioa emango zaio proiektuak arlo hauei dagokienez dakarren berrikuntza-mailari:

- Aukera-berdintasuna sustatzea enpleguan
- Denbora antolatzeko eta lana eta familia uztartzeko formula berriak bilatzea.
- Ezkutuko ekonomia azaleratzen dutenak
- Dibertsitatea kontuan hartzen dutenak

5) El grado de innovación del proyecto. Se valorará con un máximo de 20 puntos el grado de innovación del proyecto en relación a nuevas ideas, nuevas formas de hacer, metodologías innovadoras, utilización de las TICs, en materia de emprendimiento y empleo estable y de calidad.

Se valorará con 5 puntos el grado de innovación del proyecto en relación a:

- La igualdad de genero frente al empleo
- La búsqueda de formas novedosas de organización del tiempo y medidas de conciliación y corresponsabilidad
- Que afloren economía sumergida
- Que tengan en cuenta la diversidad

5 punturekin baloratuko da enplegua gizarte-inklusio eta/edo genero-berdintasunarekin

Se valorará con 5 puntos el grado de innovación del proyecto que conjugue el empleo y la inclusión

uztartzen duen proiektuaren berrikuntza-gradua.

5 puntuko balorazioa emango zaio proiektuak arlo hauei dagokienez dakarren berrikuntza-mailari:

- Orientazio, prestakuntza eta lan-bitartekotzarako metodologia berriak baliatzea.
- Enpleguaren kalitatea hobetzea
- Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen alde egiten duten proiektuak
- Pertsonen prestakuntza hobetzeko formula berritzaileak erabiltzea.

5 puntuko balorazioa emango zaio proiektuak arlo hauei dagokienez dakarren berrikuntza-mailari:

- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore estrategikoetan ekintzailetzaren eta enpleguaren arloan ideia berriak, egiteko modu berriak edo metodologia berritzaileak dakartzatenak.
- Ekintzailetzaren eta enpleguaren arloan ideia berriak, egiteko modu berriak edo metodologia berritzaileak dakartzatenak, bai ekonomia jasangarriarekin, enplegu berdearekin eta zaintzaren ekonomiarekin lotutako sektore ekonomikoetan, bai konpondu gabeko beharrizanei erantzuten dieten ondasunak eta/edo zerbitzuak merkatuan jartzen dituzten eta gizarte- edo ingurumen-balioa sortzen duten sektoreetan, bai eta baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonei ondasun edo zerbitzuak eskuratzen laguntzen dieten sektoreetan ere.

6) Proiektuaren inpaktua: Gehienez, 10 puntuko balorazioa emango zaio proiektuak

social y/o la igualdad de género:

Se valorará con 5 puntos el grado de innovación del proyecto en relación a:

- Que incidan en nuevas metodologías para la orientación, formación e intermediación laboral.
- La mejora de la calidad en el empleo,
- Que apuesten por la inclusión social y la integración laboral de personas con alta vulnerabilidad
- Que aborden fórmulas innovadoras para la mejora de la cualificación de las personas.

Se valorará con 5 puntos el grado de innovación del proyecto en relación a

- Que conlleven nuevas ideas, nuevas formas de hacer o supongan innovación en metodologías para el emprendimiento y el empleo en sectores estratégicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Que conlleven nuevas ideas, nuevas formas de hacer o supongan innovación en metodologías para el emprendimiento y el empleo en sectores económicos relacionados con la economía sostenible y el empleo verde, la economía del cuidado, o con sectores que pongan en el mercado bienes y/o servicios que respondan a problemas o necesidades sociales no resueltas y creen valor social o ambiental o que faciliten el acceso a bienes o servicios a personas con escasos recursos económicos.

6) Impacto del proyecto: Se valorará con un máximo de 10 puntos el impacto del proyecto

ekintzaileetzan eta enpleguan duen inpaktuari:

— Proiektuak kalitateko enplegu egonkorraren sorkuntzan izan dezakeen inpaktua (5 puntu).

— Proiektuak enpleguaren kalitatearen hobekuntzan izan dezakeen inpaktua. (5 puntu).

7) Genero-ikuspegia txertatzea. 4 puntuko balorazioa emango zaio proiektuan dauden jarduketa guztietan genero-ikuspegia txertatzeari.

Berdinketa gertatzen bada, ordena lehentasun-irizpide hauen arabera erabakiko da:

1) Artikulu honetako 5. irizpidean puntuaziorik handiena lortu dutenak.

2) Artikulu honetako 6. irizpidean puntuaziorik handiena lortu dutenak.

3) Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko sarrera-erregistroan eskabideak izan duen hurrenkera.

7. artikulua. *Diru-laguntza ordaintzea*

Emandako laguntza epe hauetan ordainduko da:

1. Diru-laguntza ematen den unean, gehienez, emandako diru-laguntzaren % 80 ordainduko da.

2. Geratzen den ehunekoa, 2018ko irailean, foru dekretu honen 8. artikuluan zehazten diren justifikazio-agiriak aurkeztu ondoren.

Justifikazioari buruzko agiriak 8. artikuluan zehaztutako epearen barruan aurkezten ez badira, foru dekretu honen 22. artikuluan ezarritako prozedura irekiko da.

Betebeharra aitortu eta diru-laguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga-betebeharrak nahiz zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak ere bete dituztela egiaztatuko da. Egindako egiaztapenaren bidez ikusten bada entitate onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, orduan foru dekretu honen 21. eta 22. artikuluetan ez-betetzeetarako ezarri den prozedura hasiko da, eta ohartaraziko zaio eman zitzaion laguntzaren

en el emprendimiento y el empleo:

— Impacto potencial del proyecto en la creación de empleo estable y de calidad (5 puntos).

— — Impacto potencial del proyecto en mejora de la calidad del empleo. (5 puntos).

7) La integración de la perspectiva de género. Se valorará con 4 puntos, la integración de la perspectiva de género en la totalidad de las actuaciones contempladas en el proyecto.

En caso de empate, el orden se establecerá atendiendo a los siguientes criterios de prioridad:

1) Quienes hayan obtenido mayor puntuación en el criterio 5 de este artículo.

2) Quienes hayan obtenido mayor puntuación en el criterio 6 de este artículo.

3) Orden prioritario de registro de entrada de la solicitud en la Diputación Foral de Bizkaia.

Artículo 7. *Pago de la subvención*

La ayuda otorgada se abonará en los siguientes plazos:

1. En el momento de concesión de la ayuda, se abonará hasta un máximo del 80% de la subvención otorgada.

2. El % restante, en el mes de septiembre de 2018 tras la presentación de la documentación justificativa que detalla el artículo 8 de este Decreto foral.

En el supuesto de que la documentación relativa a la justificación no se presentara en los plazos previstos en artículo 8 se iniciará el procedimiento previsto en el artículo 22 del presente Decreto foral.

Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y, en su caso, frente a la Seguridad Social. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la entidad beneficiaria no se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social se iniciará el procedimiento de incumplimiento establecido en los artículos 21 y 22 del Decreto foral con el apercibimiento de que

zenbatekoa kobratzeko eskubidea galduko duela, eta emaniko kopurua doitu egin beharko zaiola.

8. artikulua. *Justifikatzeko era*

Diru-laguntza justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailean, jarraian adieraziko diren epeetan:

2018ko otsailean, proiektuaren gauzatzeari buruzko bitarteko txosten bat aurkeztuko da, 2018ko urtarrilaren 30ean zein egoeratan dagoen azaltzen duena; txostenean, alderdi hauek jasoko dira:

- Proiektuan jasotako ekintzen azalpen-memoria, non zehaztuko diren ekintza bakoitzaren edukia eta gauzatze-maila.

  Ekintza horietako bakoitzerako, parte-hartzaileei buruzko datuak aurkeztuko dira; datuok sexuaren, adinaren (30 urtera arte, 31-45 urte bitartean eta 45 urtetik gora) eta gizarte eta laneko egoeraren (langabezian enplegu hobe baten bila edo beste egoeraren batean) arabera bereiziko dira.

- Justifikazio-memoria ekonomikoa, hauek jasoko dituena:
  - ✓ Proiektuari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria, 2017ko azken hiruhilekoari dagokiona.
  - ✓ Diruz lagundu den jardueraren gastuen zerrenda sailkatua.
  - ✓ Sarreren egoera-orriaren zerrenda zehatza: diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak eta baliabideak, finantzaketa propioa barne; adieraziko da zenbatekoak diren eta nondik datozen.

2018ko irailean, justifikazio-kontua aurkeztu beharko du, zeina martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduaren 57. artikuluan araututa dagoen, bai eta gastu-frogagiriak ere. Enplegua,

perderá el derecho al cobro del importe de la ayuda otorgada de que se trate y con el resultado de reajuste de la cantidad otorgada.

Artículo 8. *Forma de justificación*

La subvención otorgada se justificará mediante la presentación en el registro del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la documentación y en los plazos que se relacionan a continuación:

En el mes de febrero de 2018, deberá presentar un informe intermedio de ejecución del proyecto a 31 de enero de 2018 que contenga:

- Memoria descriptiva de las acciones contempladas en el proyecto, detallando el contenido de cada una de las acciones y el grado de ejecución.

  Por cada una de las acciones se aportarán los datos de las personas participantes desagregados por sexo, edad (hasta 30 años, de 31 a 45 años y mayor de 45 años) situación sociolaboral (en desempleo, en mejora de empleo o en otras situaciones).

- Memoria económica justificativa que contendrá:
  - ✓ Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto correspondiente al último trimestre de 2017.
  - ✓ Una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada.
  - ✓ Una relación detallada del estado de ingresos, indicando las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia

En el mes de septiembre de 2018 deberá presentar la cuenta justificativa, con aportación de justificantes de gasto, regulada en el artículo 57 del Reglamento Foral de Subvenciones, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, que se

Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregistroan aurkeztuko dira justifikazio-kontua eta agiri hauek:

- Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen proiektuaren jarduera-txostena, egindako ekintzak eta lorturiko emaitzak zehatz-mehatz adierazita.
- Egindako jardueren kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, honako hauek jasotzen dituena:
    - ✓ Diruz lagundutako jarduerari egotzitako gastu eta sarreren egoera-orria.
    - ✓ Gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko gastuen zerrenda sailkatu bat. Zerrendan bertan, hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa eta ordainketa-data ere.

      Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak ezarritako ereduaren arabera aurkeztuko da justifikazioa (Sailaren web orrialdean egongo da eredua), excel fitxategi-formatuan; karpeta bakar batean sartuko da, eta euskarri informatikoan aurkeztuko da.
    - ✓ Lehen aipatutako zerrendan adierazten diren fakturen fotokopia edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriena eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko agiriena.
    - ✓ Diru-sarreren egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehatua, bai eta eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.
    - ✓ Diru-laguntzen Foru Arauaren 29.3

presentará en el registro del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad por lo que se requiere la presentación de la siguiente documentación:

- Memoria de actuación justificativa del proyecto, y del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención con descripción detallada de cada una de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.
- Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:
    - ✓ Un estado de gastos e ingresos imputados a la actividad subvencionada.
    - ✓ Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos, una relación clasificada de los gastos con identificación de la parte acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago.

      Esta justificación se presentará según modelo establecido por el Departamento de Empleo Inclusión Social e Igualdad y que se publicará en la web del citado Departamento, en formato archivo excel, debiendo estar en una unica carpeta y ser entregado en soporte informático.
    - ✓ Fotocopia de las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a la que se hace referencia en el párrafo anterior, junto con la documentación acreditativa del pago.
    - ✓ Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, relación detallada de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak, hala denean.

- ✓ Hala denean, aplikatu gabeko soberakinen itzulketaren ordainketa-gutuna.

Halere, erakunde onuradunak gorde egin beharko ditu gastuetako bakoitzaren frogagiriak eta ziurtagiriak, egin daitezkeen egiaztapen eta kontroletarako, hain zuzen ere.

- ✓ Los tres presupuestos que en aplicación del artículo 29,3 de la Norma Foral de Subvenciones, en su caso, deba haber solicitado.
- ✓ En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados.

Los justificantes y documentos acreditativos de cada uno de los gastos se deberán conservar en poder de la entidad beneficiaria para las actuaciones de comprobación y control que se puedan realizar.

9. artikulua. *Diru-laguntza jaso dezakeen gauzatze-epea*

Diru-laguntza jasotzen duten ekintzak 2017ko irailaren 1etik 2017ko irailaren 30era bitartean egin beharko dira.

Artículo 9. *Periodo de ejecución subvencionable*

Las acciones objeto de subvención deberán ejecutarse en el periodo comprendido entre el 1 de septiembre de 2017 y el 30 de septiembre de 2018.

10. artikulua. *Eskabideak aurkezteko epea, modua eta tokia*

Laguntzei heldu nahi dietenek eskabide egokia aurkeztu beharko dute, eskaera-orri normalizatua erabilita, oso-osorik betea eta hurrengo artikuluan aipatuko diren nahitaezko agiri guztiak erantsita.

Eskabidea —eskatutako datu guztiak behar bezala beteta eta foru dekretu honen 11. artikuluan zehaztutako agiri guztiak erantsita— Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregistroan aurkeztu beharko da; horretarako, Mazarredo zumarkaleko 63ko beheko ezkerraldera joan beharko da, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 13:30era. Nolanahi ere, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan zehazten diren gainerako lekuetan ere aurkez daiteke eskabidea.

Eskabideak aurkezteko epea 2017ko urriaren 2an hasiko da, 8:00etan, eta 2017ko urriaren 16an bukatuko da, 13:30ean.

Eskabideak aurkeztuz, eskatzaileak baimena ematen dio diru-laguntza ematen duen organoari zuzenean lor ditzan foru dekretu honen 15. artikuluko azken aurreko atalean ageri diren inguruabarren egiaztagiriak. Horretarako, dagozkion ziurtagiri

Artículo 10. *Forma, lugar y plazo de presentación de solicitudes*

Quienes deseen acogerse a estas ayudas, deberán presentar la correspondiente solicitud en instancia normalizada cumplimentada en todos sus términos y la documentación preceptiva que se señala en el artículo siguiente.

